

HANDITZEN, HANDITZEN, ARI NAIZ HANDITZEN...



1

Abestu dezagun. Abestiaren letrak erabat azaltzen du hilabete honetan landuko duguna:

HANDITZEN HANDITZEN

Txiki, txiki, txikia
ikusten naiz kalean.

Haunditzen haunditzen,
hasi naiz haunditzen
txikia izanik
asko maite zaitut nik.

Bi begi ikusteko,
bi belarri entzuteko.

Haunditzen haunditzen,
hasi naiz haunditzen
txikia izanik
asko maite zaitut nik.

Ahoa gozatzeko
sudurra usaintzeko,

Haunditzen haunditzen,
hasi naiz haunditzen
txikia izanik

Eskuak ukitzeko,
bi oinak ibiltzeko

Haunditzen haunditzen,
hasi naiz haunditzen
txikia izanik
asko maite zaitut nik.

Burua pentsatzeko,
bihotza maitatzeko.

Haunditzen haunditzen,
hasi naiz haunditzen
txikia izanik
asko maite zaitut nik.




2

Collage bat egingo dugu. Gaur nirekin dauden familiko kideek, beraien umetako argazki bat eta oraingoa erakutsiko didate eta oroitzapenen bat kontatuko diogu elkarri.

Dastamena frogan ipintzen.

Begiak estali familiko kide bati eta gauza desberdinak eman dastatzeko, ea nork asmatzen dituen gehiago.



3

Ikusi makusi

Ea nork duen begi zorrotzagoa



4



6

Esan entzun...

Paxiera bat ematera joan eta unetxo baten arreta jarri ea zein zarat entzuten ditugun.



7

Baina...

Zer gehiago ari zait haunditzen???

Neu ari naiz haunditzen, egunez egun, bihotzez, haundi ari naiz egiten. Pertsona moduan gero eta haundiagoa naiz.

Familian bildurik, isiltasun une bat egingo dugu. Borobil bat eginik, kandela bat erdian jarriz, isiltasunaz gozatuko dugu.

Nire esku txiki haundiak

Zenbat gauza egin ditzaket nire eskuez???

Badago bat aitaxo eta amatxori asko gustatzen zaiena, eman besarkada haundi bat.



5